

Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurreproiektuaren aurretiko kontsulta prozesuen Hasiera Jardunaldiaren Agiria

Nafarroa 2018-2030

Parte hartzaileak:

- **Javier Albizu (Artazuko Udaletxea)**
- **Patxi Areta**
- **Carlos Chocarro (NASUVINSA)**
- **Pilar Cortés (Hirigintza. Lizarrako Udaletxea)**
- **Daniel Echeverría (Garraio Zerbitzua. Nafar Gobernu)**
- **Ion Erro (Proyecto 21 Proiektua)**
- **Cecilio Garín San Martín (Labeagako Udalbatza)**
- **Mariví Goñi (Gesalazko Udala)**
- **Maite Izcue (Bilatortako Udala)**
- **Miguel Angel Jiménez de Cisneros (Garraio Zerbitzua. Nafar Gobernu)**
- **Koldo Leoz (Lizarrako Udaletxea)**
- **Esther Martínez (Leringo Udaletxea)**
- **Patxi Martínez (Udal Polizia. Lizarrako Udaletxea)**
- **M^a Puy Pardo (Santiago Bideko Lagunak)**
- **Eva Ruiz (TEDER)**
- **Jesús Sáez González (Araseko Udala)**
- **Mariví Valencia Iguzkizako Udaletxea)**

Gai zerrenda:

- ✓ Lizarrerian erabiltzen den garraio erregularraren berriketa prozesuaren eta Iriarteko Garrioen Plan Integralaren berri eman zen. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.
- ✓ Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Zirriborroaren aurkezpena. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.
- ✓ Aurreko puntuen inguruan zalantzak eta iruzkinak.
- ✓ Parte-hartzaileek Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren proposamenak eginten dituzte eta biltzen dira.
- ✓ Aurkeztutako proposamenak partekatu ziren

- 1. Lizarrerian erabiltzen den garraio erregularraren berriketa prozesuaren eta Iriarteko Garrioen Plan Integralaren berri eman zen. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.**

Miguel Ángel Jiménez de Cisneros, Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzuaren Zuzendaria, PITNA aprobatzeko prozezuaren berri ematen du. Hiriarteko garraioen lizitazioa atzeratzeko arrazoiak azaltzen ditu. Bere Zerbitzuaren nahia, lizitazioak, legislatura bukatu baino lehen ateratzea da.

2. Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Zirriborroaren aurkezpena. Nafar Gobernuko Garraio Zerbitzua.

Miguel Ángel Jiménez de Cisneros Garraiobideen Zerbitzuaren Zuzendariak Planak dituen helburuak eta ildo estrategikoak aurkezten ditu.

3. Zalantzak eta iruzkinak

Eztabaida garaian, zazpi pertsonak parte hartzen dute eta hurrengo gaien inguruan aritzen dira.

- Mugikortasun Iraunkorraren Plana beste eskualde batzuetan egin diren Planetan oinarritua dagoen ala ez galdetzen dute. Kataluña eta Euskadin dauden Planetan oinarritzen da batez ere.
- Plana sustatzeko memoria ekonomiko bat faltan botatzen da. Zuzendariak diotenez, Nafar Gobernuko Kontseiluak 2019. ko martxoan, onetsiko du.
- Mugikortasun Iraunkorrerako Plana zalantzan jartzen da Garraio Plan bat ez dagolako. Gobernuaren nahia bi Planak onestea da
- Landa eremuetan nork finantziatuko duen garraioa galdetzen da. Nafar Gobernuak finantziatuko duela erantzuten dute.
- Hiriko zonaldeak edo auzoak dituzten ezaugarri bereziak kontutan izan behar dira behar dituzten garraio beharrak kontutan hartzeko.
- Garraio azpiegiturarako mugikortasun-plangintzak koordinazio handiagoa izatea proposatzen da: autobus geltokiak eta besteak.
- Hiriarteko. eskualdearteko eta konbentzionala den trena defendatzen da.
- Hiriarteko garraio publikoa egiten duten ibilgailuak biztanleriaren eta orografiaren beharretara moldatu behar dira. Ibilgailu txikiak, eskuragarriak izan beharko liriateke zerbitzu hobea eta integralagoa emateko.
- Bizikleta elektrikoa garraio bezala edukitzea hurbil dauden herrien artean
- Mugikortasun Plana integrala izan behar da: segurtasuna, orografia, eguraldia infrastrukturak... kontuan izan beharko ditu.

4. Proposamenen tailerra

Parte hartzaileek tailer batean parte hartzen dute. Bi talde egiten dira eta bertan, proposamenak ateratzen dira.

5. Proposamenen partekatzea

Agertutako proposamenak hauek dira:

- Nafarroal lurraldeen artean oreka falta bat dago: zerbitzuak eta lan eskaintzak Iruña eta bere eskualdean ematen dira. Iruñeako eta bere eskualdeko PMUS.a Nafarro guztian eragina dauka. Landaren garapen integral bat sustatzeko, zerbitzuak bultzatu behar dira.
- Espazio publikoen pribatizazioen ondorioz zaila da Iruñara heltzea: aparkaleku mugatuak eta **ORA**
- **ORA** udal diru bilketa bihurtu da soilik.
- ORAk tarifa politika berri bat behar du hospitaleko aparkalekuetan, Iruñetik kanpo datozen pertsonerako.
- Garraio publikoen tarifal aldatu. Familia batentzat garestiagoa da garraio publikoa erabiltzea bere kotxea erabili baino. Behar bereziak dituzten taldeentzako tarifan murrizketa.
- Tafallako tren geltokia mantendu. Horrela Lizarreriari zerbitzu hobea emago zaio tarte motza eta luzeetan.
- Lan mugikortasunaren garrantzia: Garraio Publikoen Plana lantegi eta industriaaldeetara heldu behar da. Eskariaren azterketa egitearen beharra.
- Bere biztanleria zaharkitua daukaten herri txiki eta hurrun daudenei, garraioa bultzatu behar da.
- Hiriarteko Errepide garraio interurbanoari bultzada eman behar zaio gaur egun geldirik dagoelako.
- Landa eremuetan garraio publikoen ordutegi eskaintza handitu behar da.
- Ziko bideak Errepide Planari gehitu behar zaizkie.
- Santiagoko Bidea sustatu oinezkoentzako eta bizikletentzako bide gisa: arriskuak kendu, bideen zabalera egiaztatu, bideen zabalera berrikusi. Nafar Gobernuak maila administratiboan koordinazio hobea egin behar erregulatzen duen Dekretu Forala hobetzeko.
- Eskola garraioa, garraioen beste erabilerekin bategarria egin behar da. Horrela garraio zerbitzuak handiagotuko lirakete eta lana eta familien bizitza bateratzea posible izango litzateke.
- Landa eremuan TP hobetzea, zailtasun handiak sortzen dituzten herrietan pasabideak saihesteko
- Taxi zerbitzua eta landa eremuetan garraioaren eskaria zabaltzea
- Landa eremuko Interneteko zerbitzu-kalitatea hobetzea telelana posible egiteko. Telelanak pertsonen mugikortasunaren murrizketa suposatzen du,
- Autoak partekatzea bultzatu konexio plataformen bidez
- Lizarran trukatzailea bultzatu eskualde osorako
- Zerbitzu publiko baten bidez, eta bere erabilerako azpiegitura seguru bat sortuz, bizikleta elektrikoa bultzatu.